



**«GIPUZKOAKO ENPRESA SAREAREN AUKERAK, BALIO
DIFERENTZIALA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATZEKO»
PROGRAMA.**

2023ko DEIALDIA

ZURITZEKO PROZEDURA

**VIII ERANSKINA: GIPUZKOAKO EKOSISTEMA SOZIOEKONOMIKOAN EZAGUTZA
SUSTATU, SORTU, TRANSFERITU ETAPARTEKATZEA**

EZAGUTZA-LEHIAKORTASUNA

Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete zure proiektuaren justifikazio zuzena egiteko.

Zalantzarik izanez gero edo justifikazioari buruzko argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin zuri keta bidali aurretik.

Tfnoa: 943 11 39 81

e-maila: sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus



Edukia

1. APLIKATIBO INFORMATIKOA ETA ZURIKETA EKONOMIKOA

- 1.1. Proiektuaren amaiera txostena
- 1.2. Zereginak
- 1.3. Partaideak
- 1.4. Proiektuaren kostuak eta finantzaketa plana
- 1.5. Betebeharreko dokumentuak
- 1.6. Gauzatutako kostuaren zehaztapena
- 1.7. Barne pertsonaren kostuak zehazpena
- 1.8. Zerga eta gizarte zegurantzako betebeharrak betetzea

2. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

- 2.1. 11 ERANSKINA
- 2.2. Proiektuaren dokumentazioa
- 2.3. 2.3. Euskera
- 2.4. 2.4 Genero ikuspegia
- 2.5. 2.5. Proiektuaren publizitatea

3. PROIEKTUAREN AMAIERA BIDALI



1. APLIKATIBO INFORMATIKOA- ETA ZURIKETA EKONOMIKOA:

Hurrengo atalak osatu eta/edo erantsi .

1.1. PROIEKTUAREN AMAIERA TXOSTENA

AMAIERAKO ZIURTAGIRIA bete.

Atal guztiak bete behar dira



"IKUSI ERANTSITAKO MEMORIA" eta antzeko formulak ez dira baliozkoak izango.

Erantsitako dokumentu gisa memoria tekniko oso bat sartuz gero, atal honetan egindako memoriaren laburpen bat sartu beharko da informazio nahikoarekin

Jarraian, gidoi gisa, AMAIERA ZIURTAGIRIAREN atal bakoitzean erantzun modura gutxienez sartu beharko litzatekeen informazioa deskribatzen da.

Atal desberdinetan eskatzen den edukia:

Betetako helburuak (ZERTARAKO)

- ◆ Lortu diren helburuak
- ◆ Onuradunak
- ◆ Lortutako hobekuntzak/emaitzak
- ◆ Aplikazio eremua



Garatutako proiektua (ZER) (NORK)

- ◆ *Egindako ekintzaren deskribapena*
- ◆ *Erabili den metodologia*
- ◆ *Egutegia*
- ◆ *Proiektuan parte hartu duten erakundeak*

Garatutako zereginak eta azpizereginak (NOLA) (NOIZ)

- ◆ *Zereginak eta azpizereginak azaldu*
- ◆ *Lortutako helburua*
- ◆ *Deskribapena*
- ◆ *Parte hartu duten pertsonak*
- ◆ *Entregaiak*

- ◆ *Gauzatutako zereginen egutegia*
- ◆ *Noiz hasi eta amaitu*
- ◆ *Zenbat lan-ordu.*

Egon diren zailtasunak (ZAILTASUNAK)

- ◆ *Diagnostikoa*
- ◆ *Diseinua*
- ◆ *Plangintza eta antolaketa*
- ◆ *Gauzatzea.*
- ◆ *Koordinazioa*
- ◆ *Bestelakoak*

Proiektuaren balorazio orokorra (BALORAZIO IRIZPIDEAK)

- ◆ *Lortutako emaitzak*
- ◆ *Helburuen betetzea*
- ◆ *Plangintza-antolaketa*
- ◆ *Garatzea – egitea*
- ◆ *Jarraipena*
- ◆ *Ebaluazioa eta neurketa*

Ondorio nagusiak

- ◆ *Hobetze proposamenak.*
- ◆ *Etorkizuneko erronkak.*



1.2. ZEREGINAK

Amaierako txostenaren zereginak

Eremu guztien (amaiera data errealak, orduak, egoera, ... eta abar) informazioa **eguneratu**, eta gehitu, hala badagokio, lehenago sartu ez diren zereginak. **6.2 eta 7.2 eranskinetan** sartutako datuekin **bat etorri** behar dute.

Zeregin guztiek "amaituta" edo "egin gabea" egoeran egon beharko dute.

1.3. PARTAIDEAK

Partaideak

(Barrukoak, Kanpokoak, edo hala badagokio kolaboratzaileak/Onuradunak/Erabiltzaileak)

ORDU ERREALAK eremua eguneratu (proiektuan emandako orduekin) eta gehitu, hala badagokio, lehenago sartu ez diren partaideak. **6.6.1, 6.2 eta 7, 7.1, 7.2. eranskinetan** sartutako datuekin **bat etorri** behar dute.

1.4. PROIEKTUAREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA PLANA

Kostuak

Gauzatutako kostuak eta finantzaketa plana (**kostuaren eta finantzaketa planaren guztizkoak bat etorri** behar dute eta kostuak **2., 9. eta 10.eranskinetan** jarritako zenbatekoen **berdinak** izango dira).

1.5. BETEBEHARREKO DOKUMENTUAK

Amaierako txostenaren dokumentuak



Eranskin guztiak bete behar dira, bere atal guztietan, data eta sinadura jarrita eta adierazitako informazioa aplikatiboan jarritakoarekin bat etorriko da. (Adibidez, proiektuaren izena aplikatiboan sartutakoaren berdina izango da eranskin guztietan)

- 1.ERANSKINA - PROIEKTUAREN AMAIERAREN ADIERAZPENA
- 2.ERANSKINA - KOSTUEN ADIERAZPENA
- 3.ERANSKINA - BEZ-ARI BURUZKO EGOERA ADIERAZPENA
- 4.ERANSKINA - BESTELAKO LAGUNTZEN ADIERAZPENA
- 5.ERANSKINA - ARDURAPEKO ADIERAZPENA
- 6.ERANSKINA - BARNE PERTSONALAREN ORDUEN ADIERAZPENA
- 6.1 ERANSKINA - Orduen txostenak: proiektuan lan egin duen pertsona bakoitzak eta haien arduradunek sinatuta.
- 6.2 ERANSKINA - - Pertsona bakoitzeko proiektuko zeregin edo faseetan oinarritutako orduen banaketa.
- 7. ERANSKINA - KANPO PERTSONALAREN ORDUEN ADIERAZPENA



- 7.1- ERANSKINA** - Orduen txostenak: proiektuan lan egin duen kanpoko entitateko pertsona bakoitzak eta haien arduradunek sinatuta.
- 7.2- ERANSKINA** - Pertsona bakoitzeko proiektuko zeregin edo faseetan oinarritutako orduen banaketa.
- 8. ERANSKINA - ENTITATE/PERTSONA PARTE-HARTZAILEEN DATUAK**

1.6 KOSTUEN ZURIKETA

- 9. ERANSKINA GAUZATUTAKO KOSTUAREN ZEHAZTAPENA.** Eranskina **Excel formatuan** erantsiko da, **atal guztiak beteta** Nolanahi ere, ez dira hautagarriak izango **300 eurotik beherako kostuak (BEZik gabe).**

- FAKTURAK ETA ORDAINAGIRIAK**

Fakturaren data **EZIN DA proiektua amaitzen den dataren ONDORENGOA IZAN, eta inola ere ez araudian ezarritako proiektua gauzatzeko amaierako data baino geroagokoa (2024ko maiatzaren 31).**

Kostuen frogagiriak eta beraien ordainagiriak eskaneatu eta erantsiko dira.

Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin **pdf** dokumentu bat erantsiko da. Bertan faktura/frogagiri bakoitza bere ordainagiriarekin batera agertuko da, **9. eranskinean jarritako hurrenkera jarraituz.**

(Artxibo handiak direnean, behar den zatietan banatuko da adieraziz adib.: Kanpo Pertsonalaren kostuak 1.pdf; Kanpo Pertsonalaren kostuak 2.pdf,)

- 15.000 EUROTIK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

15.000 euro edo hortik gorakoak (BEZa kanpo) gastuak badaude, ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, eskatutako **hiru eskaintzen artean** egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa erantsi behar du. Salbuespena: laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua diru-laguntza eskatu aurretik egin ez bada.

-Erantsi: 3 eskaintzak eta egindako hautuaren txosten sinatuta.

- 60.000 EUROTIK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

Halaber, hirugarrenekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen badu, eta zenbateko hori 60.000 eurokoa baino handiagoa bada, sinatutako kontratuaren kopia erantsi beharko da.

1.7. BARNE PERTSONALAREN KOSTUEN ZURIKETA

- 10.ERANSKINA – BARNE PERTSONALAREN KOSTUAK.**

2023 URTEKO datuekin bete behar da.

Eranskina **atal guztiak beteta** daudela **Excel formatuan erantsiko da.**

- Pertsona **2023-01-01etik aurrera hasi bada** entitatean lanean, 2023an entitatean lan egin dituen hilabeteak soilik beteko dira.
- Pertsona **2024an hasi bada** entitatean lanean, 2024an proiektua gauzatu arte, entitatean lan egin dituen hilabeteak soilik beteko dira.
- **Soldata gordinaren zenbateko osoak 190 Ereduaren** zenbatekoarekin bat etorriko da (zenbatekoak ez badatoz, bat, arrazoia dokumentu batean azalduko da eta erantsi egingo da).
- Enpresaren kargurako **Gizarte Segurantzaren kostuak** bat etorri beharko du nominan edo "Lan-kostuaren zerrenda, hilero zehaztua"n adierazitako zenbatekoarekin.



Eskaneatu eta erantsiko dira:

1. **2023 urteko 190 Eredua** (Lan etekinen, ekonomia jardueren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren urteko laburpena):
 - **Urteko laburpena,**
 - **Aitorpena aurkeztu denaren justifikazioa**
 - **Proiektuari orduak eta kostuak egozten dizkioten pertsonen urteko ordainsariei dagozkien orriak.**(hartaileen zerrenda).
2. **Langile bakoitzeko lan-kostuaren zerrenda, hilero zehaztua:** kostu gordina (kontzeptuka banakatuta) eta enpresaren kargurako gizarte segurantza jaso beharko ditu (dokumentua nominen aplikaziotik lortzen da orokorrean).
3. **Proiektuan lan egin duten eta proiektuan lan-kostua duten pertsonen 2023ko hilabete guztietako nominak.**

Hala badagokio,

- Entitatean **2023-01-01etik aurrera** lan egiten hasi diren pertsonak, entitatean **2023an** lan egin duten hilabeteen nomina guztiak erantsiko dituzte.
 - **2024an** entitatean **lanean hasi diren** pertsonak, urte horretako nomina guztiak erantsiko dituzte, proiektua gauzatzen amaitu arte.
4. **2023 urteko lehen eta azken hilabeteko nominen ordainagiria (2023/urtarrilekoa eta 2023/abendukoa).** Nomina sorten kasuan, langile bakoitzaren banakapena ere aurkeztu beharko da.

Hala badagokio,

- Entitatean **2023-01-01etik aurrera** lanean hasi diren pertsonak, **urte horretan proiektuan lan egindako lehen eta azken hilabeteko ordainagiriak** erantsiko dituzte.
 - **2024an** enpresan/erakundeetan **lanean hasi diren** pertsonak **urte horretan proiektuan lan egindako lehen eta azken hilabeteko ordainagiriak** erantsiko dituzte.
5. Proiektuan lan egin duten eta proiektuan justifikatzen den lan kostua duten pertsonen **2023 urteko hilabete guztietako RLC-ak (lehen TC1a) eta 2024ko proiektuan lan egindako hilabeteko RLC-a.**

Hala badagokio,

- Entitatean **2023-01-01etik aurrera** lan egiten hasi diren pertsonak, entitatean **2023an** lan egin duten hilabeteen RLC guztiak erantsiko dituzte eta **2024ko proiektuan lan egindako hilabeteko RLC.**
 - **2024an** entitatean **lanean hasi diren** pertsonak, urte horretako **RLC guztiak erantsiko dituzte**, proiektua gauzatzen amaitu arte.
6. **2023 urteko lehen eta azken hilabeteko RLC (TC1)-aren ordainketaren frogagiria (2023/urtarrileko eta 2023/abenduko RLC-ei (TC1) dagozkien ordainketak.**

Hala badagokio,

-**2024an** enpresan/erakundeetan **lanean hasi diren** pertsonak urte horretan proiektuan lan egindako lehen eta azken hilabeteko ordainagiriak erantsiko dituzte.

7. Proiektuan lan egin duten eta proiektuan justifikatzen den lan kostua duten pertsonen **2023 urteko hilabete guztietako RNT-ak eta 2024ko proiektuan lan egindako hilabeteko RNT-a (lehen TC2).**

Hala badagokio,

- Entitatean **2023-01-01etik aurrera** lan egiten hasi diren pertsonak, entitatean **2023an** lan egin duten hilabeteen RNT guztiak erantsiko dituzte eta **2024ko proiektuan lan egindako hilabeteko RNT.**
- **2024an** entitatean lanean hasi diren pertsonak, urte horretako RNT guztiak erantsiko dituzte, proiektua gauzatzen amaitu arte.



8. **Langile autonomoen kasuan**, RLC/RNT agirien ordeztu, langile autonomoen araubideari dagokion kotizazio-ziurtagiria, eta Kooperatiba-sozietateen kasuan, bazkide kooperatibisten kotizazio-ziurtagiria, dagokion Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzaileak emana (2023 urteko hilabete guztiak eta 2024 urtean proiektuan lan egindako azken hilabetea). Halaber, 2023ko lehen eta azken hilabeteko ordainketak (2023ko urtarrila eta abendua).

*****Agiriak nola igo:**

- **Artxibo bat, 190 ereduarekin** (urteko laburpena, aitortpena aurkeztu denaren justifikazioa, proiektuari orduak eta kostuak egozten dizkieten pertsonen urteko ordainsariei dagozkien orriak (hartzaileen zerrenda) **(aukeratu: 190 EREDUA)**)
- **Pertsona bakoitzeko** (Barne Pertsonala) **artxibo bat** erantsiko da. Artxibo horrek pertsona bakoitzeko eskatzen den dokumentazio guztia barneratuko du (**lan kostuaren zerrenda hileroko zehaztua, nominak eta nominen ordainagiriak**).
- Artxibo bat **2023 urteko hilabete guztietako RLC (TC1)-ekin** eta **2024ko proiektuan lan egindako azken hilabetea** **(aukeratu: RLC-TC1)**
- **Artxibo bat RLC (TC1)-en ordainagiriekin** (2023ko lehen eta azken hilabetekoak). **Aukeratu: RLC-TC1 ORDAINAGIRIAK**
- **Artxibo bat 2023 urteko hilabete guztietako RNT (TC2)-ekin** eta **2024ko proiektuan lan egindako azken hilabetekoak** **(aukeratu: RNT-TC2)**
- **Hala badagokio, autonomoen kotizazio-ziurtagiria edo bazkide kooperatibisten kotizazio-ziurtagiria, 2023 urteko hilabete guztiak** (eta 2023ko lehen eta azken hilabeteko ordainagiriak) **eta 2024ko proiektuan lan egindako azken hilabetea**.

1.8. ZERGA, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA/EDO LANGUNAROKO BETEHARRAK BETETZEA

1. Departamentuari **baimena eman ez bazitzaion entitatearen zerga betebeharrak eta gizarte segurantzako betebeharrak egiaztatzeko**, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzako betebeharrak betetzen dituelaren ziurtagiriak erantsi beharko dira
2. Entitateak Gizarte Segurantzaren **ordezko sistema** izango balu, **berarekiko betebeharrak betetzen dituela azaltzen duen egiaztagiria erantsi**.

2. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

2.1 - 11. ERANSKINA – proiektuaren alderdi tekniko espezifikokoak – atal guztiak beteta

2.2 - DOKUMENTAZIOA¹

Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da. Bertan, proiektuaren dokumentazio teknikoa, grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak sartuko dira.

2.3 - EUSKERA

- Proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazioa eta hedapen jardueretan EAEko bi hizkuntza ofizialen erabileraren ebidentziak jaso behar dira dokumentu batean

2.4 - GENERO IKUSPEGIA

- Proiektuaren diseinu, garapen eta emaitzetan genero-ikuspegia txertatzearen informazioa aurkeztuko da.
- Proiektuaren komunikazio eta argitalpenetan hizkeraren erabilera ez sexista betetzearen ebidentziak aurkeztuko dira.

2.5 - PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak emandako laguntza eta sustapenari dagokionez, **proiektua gauzatzean egindako publizitate egokia jasotzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi beharko da** (irudi instituzionala, legendak, dokumentuetan, bitarteko elektronikoetan, komunikabideetan eta abarretan sartuta).



3. PROIEKTUAREN AMAIERAREN JUSTIFIKAZIOA BIDALI

Bidali aurretik mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

PROIEKTUAREN AMAIERA ZIURTAGIRIAREN izapidetzea AMAIERAKO ZIURTAGIRIA BIDALI aukera hautatuz egiten da.

The screenshot shows a web interface for project management. At the top, it says 'SUSTAPEN EKONOMIKOA DIRU-LAGUNTZA KUDEAKETA'. Below that, there's a header with 'Gipuzkoako Foru Aldundia' and 'Entidad Pruebas Diputación'. The main content area is titled 'Proiektua' and shows 'Ana probando' under 'Egoera', 'Onartuta' under 'Egoera', and 'Amaierako Ziurtagiria' under 'Fase'. There are navigation tabs: 'Dokumentuak', 'Proiektuaren zereginak', 'Hasierako Ziurtagiria', 'Jarraipenak', 'Amaierako Ziurtagiria', and '← AURREKOA'. Below these are more specific tabs: 'Amaierako bostena', 'Amaierako bostenaren zereginak', 'Partaideak', 'Kostuak', and 'Amaierako bostenaren dokumentuak'. At the bottom, under 'EKINTZAK', there is a button labeled 'AMAIERAKO ZIURTAGIRIA BIDALI'.

Proiektuaren Fase Amaiera Ziurtagiria BIDLITA aldatuko da

| |
|-------------------------------|
| Fase |
| Amaierako Ziurtagiria BIDLITA |